

Pako Aristi

Irunberri, 1990:
Arroilaren negarra



erein

IRUNBERRI, 1990
ARROILAREN NEGARRA



Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.
Liburu honek Oñatiko Udalaren sormen diru-laguntza jaso du.*

1. argitalpena: 2023ko apirilean

Azaleko irudia:

Ivan Landa. (Etakideek Irunberrin zeukaten akanpalekuaren argazkia, sumarioan jasota dagoena).

«Azken alegatua» ataleko marrazkien egilea (259, 263 eta 265. orr.):
Enaut Uribesalgo.

Rubenachen buruko firoaren grafikoa (269. orr.):
Oihane Goikoetxea Larrañaga.

Liburuaren diseinua eta maketazioa:
Erein

© Pako Aristi

© EREIN. Donostia 2023

ISBN: 978-84-9109-866-9

L.G.: D 196-2023

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus   

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20569 Oñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net

IRUNBERRI, 1990

ARROILAREN NEGARRA

Pako Aristi



erein

Oñatiko GURE BAZTERRAK fundazioak bultzatu eta babestu du ikerketa hau. Eskura jarri didate zeukaten dokumentazioa, hala nola testigantza pertsonalak lortzeko bideak.

Ezinbestekoa izan da Juan Jose Zubietak eskaini didan hemerotekaren bilduma.

Ezinbestekoa, baita ere, Txalaparta argitaletxeak 1990eko urrian argitaratu zuen *Foz de Lumbier, antecedentes y crónica de unas ejecuciones* liburua, Ricardo Zabalzak idatzia.

Ezinbestekoa Txemi Gorostiza abokatuak emandako laguntza, sumarioa gure eskura utzi zuelako.

Proiektu honek Euskal Memoria Fundazioaren eta Egiari Zor Fundazioaren babesa izan du.

Ikerketa hau itxi dugunean autopsia eta bertako argazkiak Aranzadi Zientzia Elkarteari entregatu dizkio Gure Bazterrak elkarteak, sakonago ikertu ditzan.

Ezinbestekoa, azkenik, gertaera hau argitzen lagundu diguten guztien ekarpena:

Abel Castillo	Juanito Rubenach
Aitor Arruti	Julen Aranburu
Ander Lizarralde	Karmen Iñurritegi
Aran Sagasta	Koldo Gracia
Endika Martinez Zulet	Koldo Guridi
Enkarna Maiztegi	Lander, Gasteizko Martxoak 3
Eñaut Uribesalgo	Elkartea
Esteban Arregi	Larraitx Ugarte
Fermin Munarriz	Marian Husken
Fernando Rey	Mentxu Uriz
Hala Bedi irratia	Mila Maiztegi
Hibai Garai	Olga Brajnovic
Iñigo Antia	Rebeka Maestro
Irunberriko lagunak	Roberto Zabarte
Itsaso Ugarte	Susana Uribetxeberria
Itziar Lizarralde	Txemi Gorostiza
Jone Arrazola	Uzkudun sendia
Jose Manuel Arzallus	Xabier Golaraz
Juan Antonio Anzar	Xabier Igartua
Juan Carlos Arruti Aizpitarte	Xabier Nieto «Aresoko Beltza»
Juan Jose Zubieta	Xabier Ugarte



«Behin ezinezkoa baztertu ondoren,
gelditzen denak egia behar du izan,
gertagaitza iruditu arren».

ARTHUR CONAN DOYLEK,
SHERLOCK HOLMESEN AHOTAN

AURKIBIDEA

1. TRAGEDIA BATEN LEHEN NOTAK	13	Medikuz jantzia	99
Udako goiz eguzkitsu batean	13	Sasiarteko tronua	101
Guztia Aste Santuan hasi zen	17	Amaiera perfektuegia	104
Zorionaren azken eguna	20	Suizidioaren elur bola	109
Konfiantza larregi	23	Sua kaleetan	112
Ustekabeen etsaiak aurrez aurre	27	Erreakzio politikoak	116
Zer gertatu da?	32	Arroila begiaren neurrira	121
Ez nuen tiro egin, bai nuen egin	37	Bertsioen arteko duelua	123
Domínguez Pirisen ipurmasaila	40	Hermeneutika	126
Heriosuhar	44	Tiroak airea urratzen	129
Zuen kotxea nahi dugu, besterik ez	47	Komisarioaren hitzak	130
Mendian harrapatzen bahaute	48		
Hegazti holandarrak	51	4. HERIOTZAK HAUTSITAKO	
Pultsoa epaitegian	54	BIHOTZAK	135
Holandarrek esan zutena	57	Kronika bat bost ihesalditan	135
Iturri informatiboen egiaztatzea	59	Bizitza gurutzatuak	138
		Azken gutuna	142
2. BIZI-HARI MEHE BAT	63	Anaiaren pausoen atzetik	145
Ume-hotsak pareta artean	63	Ahanzturaren gotorlekua	147
¿ <i>Nos vais a matar?</i>	65	Ukabilkada bat urdailean	147
Aktore berriak arroilan	67	Neska ez da hiltzen	150
Jainkoaren begia	73	ETA Amsterdamen	153
Ez genituen harrapatu	75	<i>Susanari ni zauritu nion</i>	155
Bala bat masailezurraren azpian	77	Baskenland 1990	159
Germanen belauna	79	Atarrabiako jaietan atxilotua	161
Atxiloketa baten bigarren historia	83		
		5. NORK HIL DU SUSANA?	165
3. GAU ILUNA, GAU LUZEA	87	Artxiboetan aztarrika	165
Enteratu al haiz?	87	Zer gertatzen zaio Rubenachi?	167
Bederatziak ihes	89	<i>Preguntado para que manifieste</i>	169
Egungentziaren mikatza	93	<i>Destino Francia</i>	172
Hiru izen gorpu batentzat	96	Errege Maiestatearen izenean	177

6. POSIBLE BALITZ BI ALDIZ HILTZEA	181	Hesteak takoietan	218
Errepikatuko duzu, mesedez?	181	<i>Modus operandi</i>	222
Uretan hil & Urगतik hil	184		
Transakzio politikoak	185	9. AZTARNA MUTUAK	225
Argibideen eske	188	Bi aukera, ikerketa bakarra	225
Hitz ezkutuaren bila	189	Urte berri on	228
		Galderak telebistaren aurrean	230
7. OPERAZIO ATZERATUA	191	Itxaropen izpi arinak	233
Informazioaren hirusta	191		
Lurrazpiko igeltseroak	195	10. <i>VOGELS KIJKEN</i>	235
Zulo bat, hiru hipotesi	198	Fusilak ikasleen aurka	235
Errifle bat sanferminetan	201	Oroimenaren duda-mudak	238
Kafe bat Roldánekin	203	Madrileko bunker sekretuak	241
		Agur adeitsu bat	244
8. ZUHAITZAREN SUSTRAIAK	207		
Fitxa polizialak 1	207	11. AZKEN ALEGATUA	247
Fitxa polizialak 2	210	Aurrekari faktikoak	247
Komando berriak	212	Frogatutako gertaerak	254
Hiru aldiz min	215	Legezko oinarriak (edo justiziazkoak)	268



IRUNBERRIKO ARROILA



TRAGEDIA BATEN LEHEN NOTAK

Udako goiz eguzkitsu batean

1990eko ekainaren 25ean, eguerdiko hamabiak inguruan, hiru lagun, bi mutil eta neska bat, bainatzen ari dira Irunberriko Arroila alderik alde zehar-katzen duen Irati ibaiko ur freskoetan. Iruñetik 40 kilometrora dago Irun-berri, hego aldera pixka bat, ekialdera beste apur bat, Huescako bidea hartuta. Uda hasi berria da, eta bero sapa ikaragarria egiten du, goizean goi-zetik bazterrak kiskaltzen dituen horietakoa.

Gazteak txandaka bainatzen dira. Bizpahiru poltsa dauzkate ibaier-tzeko harrien gainean, eta beti dago norbait poltsak zaintzen. Haietako ba-tean nortasun agiri faltsuak dauzkate, eta gauza arruntagoak: eskuko ispilu bat, tabakoa, azkazal-moztailea... Beste poltsan hiru pistola gorde dituzte, Browning 9mm parabellum, eta hiru kargadore. Ez dute «gitarrarik» eka-rrri, metrailetak, haien argotean. Laguntzaileek daukaten gordeleku batean utzi dituzte. ETAko Nafarroa komandoa osatzen dute, baina ez datoz ekin-tza bat egitera, informazioa jasotzera baizik. Hori da komandoen dinamika: laguntzaileek emandako informazioa baieztatu egiten dute ekintza egin au-rretik; eurak dira arriskua hartzen dutenak, azken batean, eta ez dira kami-kazeak. Dena ongi planifikatu, ihesbideak zehaztu eta arriskua ahalik eta gehien murriztu ondoren ematen dute kolpea.

ETA indartsu zegoen garai hartan. Erakunde boteretsua da, hala baieztatzen dute iturri polizialek ere. 1987an Hiperkorreko atentatua egin bazuen ere, eta erosketak egiten ari ziren 21 zibil hilik gertatu, estrategikoki Espainiako indar armatuak baino ez zeuden haren jomugan. Aurreko urtean, 1989an, Espainiako gobernuak Aljeriako negoziazio mahaian esertzea lortu zuen, hartarako menia bat eskainiz. Ahaleginak porrot egin ostean, bi al-derdiek euren jarrerak gogortu egin zituzten. Komandoek etsaia etengabe eta ahalik eta sarrien kolpatzeko agindua jaso zuten, eta poliziak muga as-korik gabe egiten zien eraso militanteei, «tiroketa» epigrafearekin mozorrotuz erailketa eta exekuzio ugari.

Zeintzuk dira gazte hauek?

Jon Lizarralde Urreta da zaharrena, 34 urte, Andoainen jaioa. Esperientzia handiko militantea, hamarkada bat darama erakundean. Bost aldiz egin du ihes poliziaren atzaparretatik. Aurreko urtean Luis Roldán Guardia Zibilaren zuzendariaren ondoan hartu zuen kafea Iruñeko taberna batean, haren aurkako ekintza egiteko asmoz; baina bizkartzain asko dauzka inguruan, eta bertan behera utzi dute. «Mikel» du guda izena. «Tripax» ere deitzen zioten lagunek, baina poliziak, batez ere, «Heavy».

Bestea German Rubenach Roiz da, 25 urte, Bilbon jaioa, urte asko daramatza Iruñeko Arrotxapean. Txalupa komandoan zebilen, baina beste bi kideak autoan prestatzen ari ziren lehergailuak eztanda egin eta hil ziren, German amaren hiletan zegoen bitartean, eta Iparraldera egin zuen ihes. Gero, Nafarroa komandoan integratu zen. «Joseba» du izen klabea.

Susana Arregi Maiztegi da neska, Oñatiko Kanpizelai baserrian jaioa, 25 urte ditu berak ere. Araba komandoaren laguntzaile lanetan aritu ostean, dozenaka guardia zibil etorri ziren baserria miatzera, bera kanpoan zelarik, eta herritik ihes egin zuen. Germanen bikotekidea da. Bi izenez deitzen diote orain: «Sorgin» edo «Kontxi».

Gazte hauek bainatzera jaitsi diren arroila oso leku berezia da: motozerra kosmiko batekin ebakitako mendi harritsuaren eztarri ikusgarri bat. Irunberri eta Ledea herrien artean dago, herri bakoitzetik kilometro eta erdira edo. Handik hurbil, Zangoza eta Esako urtegia daude. Arroilak berak mila hirurehun metro ditu. Bi mendi-pareta erraldoiren artean dago, tonu gorrixka duen kareharrizko labarra osatzen duten murraila garaiak, zatirik sakonenean 400 metroko altuera dutenak.

Bi sarbide besterik ez ditu, bi tunel: Irunberrikoa, eta Ledekoa. Erdian Irati ibaia igarotzen da, bere putzu sakonekin, eta oso arriskutsua da hura gurutzatzea edo igeri eginez handik ateratzea. Ito izan da jendea bertan. Erdian presa artifizial bat dago. Jendea egun-pasa edo bainatzera joan ohi da.

Irunberritik behatzen dugularik, ibaiaren ezker aldean doan lurrezko bide batek zeharkatzen du arroila. Kamino hau da pasabide bakarra: zerurantz altxatzen diren harriak ezin igo dira, sigi-saga doan korrontea tranpa hilgarri liteke. Kaminoa eta ibaia paraleloan doaz, eta haien tartea inoiz ez da 20 metro baino gehiago. Zer dago eremu horretan? Harriak, haitzak, sasiak eta zuhamuxkak. Soilguneak ere bai. Ez da oihan itsu iluna, bertso ofizialak kontatuko duen bezala, iheslari batzuek aurkitzeko ia egun oso bat behar izateraino.

Tunelak 1911n zulatu zituzten, trenbidea eraikitzeko. Berrehun metro inguruko luzera du bakoitzak, eta horretarako Bilboko Labe Garaie-tan esperientzia zeukaten meatzariak ekarri zituzten. Haiek apurtu zuten arroilaren milioika urteko intimitatea, ordura arte hegaztiek eta mendi piz-tiek bakarrik gozaten zutena.

«Irati» izena jarri zioten tren hari eta Iruñea eta Zangoza lotzen zi-tuen, 58 kilometroko ibilbidea bi ordu eta hamabost minutuan. 1955ean utzi zion ibiltzeari; orduan, trenbidea jaso eta lurreko pista utzi zuten. Or-duan jendea natura basatiari irabazitako espazioa okupatzen joan zen.

Arroila sagu-tranpa bat da, tunelak itxiz gero irteerarik gabeko es-pazioa. Egokia ekintza bat egiteko, lehergailua zartarazteko ekintzailea au-rreko horma garaian urruneko mando batekin baldin badago; baina barruan hesitzen badute, ihesa ezinezko bihurtzen duen eremu arriskutsua da.

Hurrengo egunean, ekainaren 26an, Nafarroa komandoko hiru militante horietatik bi tiroz hilda agertu ziren: Jon Lizarralde eta Susana Arregi; hirugarrena, German Rubenach, ospitalera eraman zuten 25eko ilu-nabarrean, oso larri, bi tiroekin: bat eskuin belaunean, bestea aurpegian.



Irunberriko Arroila.

Ekaineko egun hartatik 33 urte igaro dira, eta otsaileko goiz fresko batean Oñatira joan ginen, Kanpizelai baserrira. Sukaldean ekonomika piztuta dago. Han bizi da Enkarna Maiztegi, Susana Arregiren ama. Laurogeita hamar urte ditu, burua argi, eta badirudi erdietsi duela bizitzak ekarri dizkion zoritxarrak onartzeko patxada: tiroz hildako alabaz gain, min-biziak eraman dion semearen heriotza ere ikusi du. Beste hiru bizi ditu. Eta badu arroila deskribatzeko modu bat, saminak haragi bihurtu dizkion hitz hauekin:

«Irunberrira, alde bixak zarrau ezkerro, ez dago inñundik hara sartzerik, ha kartzela garbi-garbixa da. Han ez dago gero inñora ihes egitterik e! Haitza dako alde batetik, eta beste aldetik errekoa, eta arantzia eta zastrapia. Han basaurderik be ez da pasaitten! Nundik nora eballi zittuain be ez dakigu. Gurria torturatu egin euen azkeneko topeiraño. Egingo otsain egin zeikien danak. Eta azkenian emun otsain bi tiro».

Esango nuke, inoiz egon baldin bada, gorrotoa haren begiradan urtua dela aspaldi, eta haren ordez Irunberri eta Ledea arteko mendilerroaren profila itsatsita geratu dela betirako bere begi-ninietan.



Tunelak ilunak dira; ia irteera arte ez da argirik ikusten.

Guztia Aste Santuan hasi zen

Komandoetako kide gehienak «liberatuak» izaten ziren, poliziak fitxatu eta ihes egin ondoren legez kanpo bizi zirenak, nortasun agiri faltsuekin eta erakundearen kontura. Aitzitik, laguntzaile jende gehiena «legala» izaten zen, legearen barruan zeuden, fitxatu gabe. Jende honek itxuraz bizitza normala zeukan, ez zuten pistolarik eramaten, baina babesa, informazioa eta azpiegiturak eskaintzen zizkieten liberatuei. Nork bere ahalmenaren edo borondatearen neurriko konpromisoa hartzen zuen. ETAk baliabide asko zituen garai hartan, arma labur eta luzeak, lehegailuak egiteko osagaiak, arma-biltegiak, pisuak, bahituentzako zuloak, dirua, eta haietako asko legalek gordetzen zituzten.

Nafarroa komandoak bazituen bost sostengu talde: Lekunberrin (Madotz eta Mugiro), Iruñean, Tafallan, Areson eta Cadreitan, hau pertsona bakar batek osatua, Julen Perez Cambra «Tasio»k. Bederatzi pertsona inguru guztira, eta ez zutenak elkar ezagutzen; komandokoek soilik zeukaten laguntzaile guztien berri. Atxilotzera iritsiz gero, informazio iturri agorrezina ziren komandoetako militanteak.

Urte asko igaro dira, eta gaur hitz egin dezakegu garai hartako bi laguntzailerekin: Xabier Goldaraz Aldaya, Mugirokoa, eta Juan Jose Zubietta Zubeldia, Lekunberrikoa. Eurak eraman zituzten hiru militanteak Irunberriko Arroilara. Gertaeretako gau hartan ihes egin zuten, eta urtebetera edo bira atxilotu zituzten leku ezberdinetan. Beste kausa batzuen artean Irunberriko «txoferrak» izateagatik kondenatu zituzten. Hogeita bi urte kartzelan eman ondoren, kondena betea dute gaur egun.

Haiek gaztetan ohi zuten bezala, Lekunberriko frontoiaren aurrean egin dugu hitzordua, leihatiletan errezela txikiak dituen Goldarazen furgonetan, eta oraindik ere mantentzen dituzte hainbat segurtasun neurri: mugikorrak urrun daude, ez didate grabatzen utziko, eta gero testua ikuskatzeko eskubidea eskaini diegu.

Xabierri begirada umeltzen zaio oraindik ere honetaz hitz egin behar duenean:

«Orain askotan etortzen zait gogora hori guztia. Azken batean, neure ideia izan zen, neuk eraman nituen hara. Gau askotan pentsatzen dut hori, baina, borroka armatuan zabilzanean, hor ez bada beste nonbaiten gerta zitekeen. Lapurretak egon ziren kontu hori guk ez genekien».

Lapurretak egon ziren kontua: datu garrantzitsua. Aurreko asteetan lapurreta ugari izan ziren turistek aparkalekuan uzten zituzten autoetan,

ehun salaketatik gora, eta Guardia Zibila erneago zebilen lapur haien peskizan. Ardura horrek gidatu zuen Hervás ibaiertzera.

Guztia Aste Santuan hasi zen. Xabier egun batzuk pasatzera joan zen inguru haietara, eta ikusi zuen polizia patruilek arroila alderik alde zeharkatzen zutela egunean zehar. Ekintza batentzat leku ona izan zitekeela otu zitzaion: sagu-zuloan, bidean lehergailu batzuk jarri eta, patruila bere Nissan Patrolean parean igarotzen zenean goitik, mendi malkarretik urrutiko kontroleko gailu baten bidez aktibatuko zuten. Arriskuak urriak ziren, ihesbidea segurua. Komandoak lortu behar zuen informazioa zen ea Guardia Zibileko patruilek bazuten ordu finkorik egunero handik igarotzeko, edo aldian aldian eta nahieran egiten zituzten bidaiak.

Aski zuten horretarako libreta bat, boligrafoa, eta pazientzia puska bat, egun osoa txandaka jagole gisa emateko. Hiru eguneko apunteak iritsi zaizkigu, Jon Lizarralderen letra txukunez idatziak, eta dauden datuengatik, esan liteke Jon tragedia baten lehen notak idaztera iritsi zela: iragarria dago bertan astelehenean gertatu zitekeelako aukera.

Baina giharrak, gogoa eta aldartea egurasteko ere aprobetxatu nahi zuten egonaldia, haizea, eguzkia, argia eta ibaiko uraren freskura dastatu, ia hiru hilabete lurpean egotetik baitzetozen. 1989ko azaroan Adolfo Villoslada bahitu zuten Iruñean, Beramendi-Urrizako mendietan lurpean eraikitako zulo batean gorde zuten, eta 350 milioi pezeta ordaindu ondoren 1990eko otsailan askatu zuten arte ez ziren kasik haren ondotik mugitu. Egun argia ikusi barik, hala moduz janez espazio txiki hartan, kondena bertsua igaro zuten bahitzaileek eta bahituak, bigarrenak bere borondatearen aurka, noski.

Ledeako tuneletik atera eta ezkerretara mendiko pista batean ia kilometro eta erdi gora joanda, bista izugarriak dauzkan gaindegi zoragarri bat aukeratu zuten bi kanpin-denda jartzeko. Denda tubularrak ziren, «kamuflejekoak», militarrek edo ehiztariek erabiltzen dituztenetakoak, inguruko arbola eta landare-hostoekin berdintzeko. Ezpela ugaria zen leku hartan, eta guztiz estaltzen zituen dendak, behetik ezin ikusteraino. Han zituzten arropak, jatekoak, ur botilak, tabakoa eta abarrak. Dena laguntzaileek eraman zieten; ez ziren herrira jaisten erosketak egitera.

Egunetara, sutarako egur asko aurkitu zuten ikertzaileek bertan, eta portzelanazko hiru kikara txuri, ertz urdindunak... Irudika genezake su txiki bat gauean izarren azpian, kafe beroa goizean eguzkia bazterrak horitzen hasi aitzin... Kikaretako batean aurkituko dute Lizarralderen hatz-marka bat, Arregirenak beste objektu batzuetan...

Kanpalekutik 250 metrora behatoki bat ezarria zuten, bisera forma zeukan haitz baten babesean. Bertatik Iruñea-Jaka N-240 errepidearen bost kilometroko zatia ikusten zuten, eta Ledeatik hurbil dagoen harrobia. Han joan ziren apuntatzen, egunez egun, patruilen joan-etorriak, gero poliziak Jonen letra garbian idatziak aurkituko dituenak.

Ekainaren 20a da. Goldarazek eta Zubietak Iruñean jaso dituzte militanteak, eta handik abiatu da segizioa. Lehenengo autoan Xabier eta Juanjo; atzeko autoan hiru militanteak. Aurreko autoak zaintza lanak egiten ditu, poliziaren kontrolen bat egongo balitz edo. «Lanzadera» deitzen zitzaion auto horri. Nola abisatu, ordea, telefono mugikorrik ez zegoen garaian?



Arroilaren gainaldean jarri zuten kanpina, ikusmira paregabeak zituen lekuan.

Gogoan du Juanjok bidaia: «Hamar kilometro egiten genituen, haiek atzean itxoiten zeuden bitartean. Kontrolik ez bazen, buelta eman, haiengana itzuli eta atzetik ekartzen genituen. Gu beste hamar kilometro aurreratu, eta berdin, berriro atzera eta haiek ekarri. Gu itzultzen ez baginen, esan nahi zuen kontrola zegoela, pasa genuela, zeren gu legalak ginen, ez geunden fitxatuak, ezer ez zuten gure aurka, baina ezin genuen atzera itzuli, poliziaren susmoak ez piztearren. Gu agertzen ez baginen, haiek Iruñera itzuliko ziren segituan».

Iruñetik Irunberrira 39 kilometro dira, hogeit hamar minutuko bidea autoan. Baina haiek bi ordu behar izan zituzten egun hartan, «Irati» izeneko trenan baino makalago.

Zorionaren azken eguna

Ekainaren 24a da, San Joan eguna. Xabier eta Juanjo lagunak bisitatzera joan dira Irunberrira, igande-pasa. Kostillak eramane dituzte, sagardo botila batzuk, eta janari zerbait arroilan geratzen zaizkien bi egunetarako. Asteartean egin dute hitzordua, 26an, arratsaldeko bostetan Irunberriko aparkalekuan, haiek jaso eta Iruñera eramateko. Komandoak hitzordu bat dauka arratsaldeko zazpitan.

Bero izugarria egiten du, eta arroilara jaitsi dira bainatzera. Igandea izaki, jende asko dabil egun-pasa joanda, familiak umeekin, turistak, han bada barre algara, oihera eta plisti-plasta hotsa. Haragia erretzeko sua piztu eta arroilan bertan bazkaldu dute, sagardo botilak Irati ibaian freskatzeko ziren bitartean.

Bost lagun dira, ordu batzuetan bederen itxura normala daukan bizitza bat gozatzen, elkarren konpainia, bromak eta sagardo tragoak. Ezin da uneoro atezuan egon. Mendian ibiltzen ziren ahal zutenean, lasaiagoa zen, urriagoa poliziaren presentzia, eta, batez ere, eguzkia hartzeko aukera aprobetxatzen zuten, egurasteko. Sasian bizi denak hilabete asko eman ditzake pisu txiki batetik irten ere egin gabe.

Une batean Guardia Zibilaren bi Nissan Patrol pasatu dira poliki-poliki arroilan barrena, ur ertzaren freskuran dagoen jendea begira, beakitez, agian; zeinen ongi egonen den hortxe, kostillak erre eta patxada ederean dauden gazte horiek bezala! Ordea, jende asko dago arroilaren